

Lo dago, mesié

Iñaki Perez-Armendia

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1995



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Lo dago, mesié

Iñaki Perez-Armendia

Julene Azpeitia 8. ipuin lehiaketa

1995

2. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Iñaki Perez-Armendia (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Hala da, ondo ezaguna nuen bai, nire bezeroa ez bazen ere, bakizu, ez zen nire bezeroa ze tajuzko indioak ez baitu inoiz ilerik mozten, ondo dakizu, hor ibiltzen dira denak mototsa kapeletik kanpora dutela eta bizarrik ere ez dutenez, ba, ez dizute negozio aukera handirik ematen, ez badira behintzat azkazalak txukuntzera etortzen, eta eztira, ez, horretara oso emanak, esateizut, haranzkoan hemen geratu ohi zen eta itzultzerakoan aulki horietakoren batean lo kuluxka botatzen zuen otoitz edo kantaren baten marmarrean kulunkatuz, erabat nagiak jota eta atari osoa ketu eta usainez betez, bakizu, auskalo ze onddo edo belar zahar erretzen zituen, eta horrelaxe egoten zen, nik nire ohizko bezeroei bisaia leuntzen nien bitartean hitzik egin gabe, ez baizen ez berriketa zalea, eta gero, tarteka, "flus" txikienik gabe altxatu eta han joango zen "ruada"n gora, diligentziak berak baino hauts gehiago harrotuz, hala da bai, estropezuka han desagertuko zen kaiola guzti haiekin, eta kalea, berriro ere, hots txikienik gabe geratuko zen, hainbestearainokoxe isiltasunean ze eguzkiaren burrunba entzun zitekeen, ulertzezu, zerorrek ere, hortxe gelditu eta adi jartzen bazara, eguzkia entzun egingo duzu, neuk esanda bezalaxe, baina, tira, Tucsónetik baldin bazatoz ondo ezaguna behar zenuke pasadizo hori edo, agian, etzera inoiz geratu La Gilako basamortuan, a ze txorakeria iruditzen zaidan niri lautada horretako isiltasunaren kontu hori aipatzen dutenean, ez dut hori baino leku zaratatsuagorik ezagutzen, harriek hitz egiten dute, mageyak kantari aritzen dira, saguaroak algara bizian, kaskabelak zizikatze berde betean, harritu egiten zara, begira, adi, bazter horretan dabilen armiarmaren hanka-hotsa entzun dezakezu, egia esan, zuk denboratxo bat beharko duzu zure buru barrena soinu hustu eta senti dezan egokitzeke, hark garbi esaten zigun, keinurik gabe, hitzik gabe, inork irakasten ez duena argitzen zigun, eta ondo ikasi nuen bai, 4 edo 5 hilabetez behin igaro ohi zen hemendik gurdia bete kaiolarekin, al dakit ba nik, 25 edo 30 ere ekar zitzakeen, pita hariz kordaturiko kanpai batzuk, ezaguna izango duzu pita, ezta?, eta besoa jasotzen zigun aurretik pasatzean astoari xaxaka, autoen bozinak isiltzearren, bakizu, eta dendan geratzen zen hustutako kaiolak betetzera eta zuzenean kanposantura joko zuen, atsegin zitzaion leku bakarra beretzat, nik nire artean diot han bere zeruekin hitz egiten zuela, eta handik gutxira, hor azalduko zen berriz, esateizut, honaino helduko zen kaleko hauts guztiak harrotuz eta esanda bezalaxe hortxe geldituko zen, gainerakoa badakizu, hemendik 3 orduko bidean zeukan etxea eginda, estalpe koxkor bat, ez pentsa, "tipi" eraberritu baten antzeko zerbait, lataz egindako esfera erdi bat, ohantze eta aulki

batekin, eta itzaltzen ez zen betiereko su txiki bat, mutikoak kontatu zidan, bere bilobak, bai, 8 urteko mutik koskor bat, egunez ere ez zela surik itzaltzen, baina han barruan ez zuela inoiz berorik egiten eta harrigarria irizten nion, baina halaxe zen; dozena pare bat ahuntz eta oilo bakan batzuk zaintzen zituzten eta salmenta bat edo bestez ateratakoarekin aurrera egiten zuten, hori bai, berak ez zuen edaten eta, esateizut, erretzen zuen tabakoa ere zer zen ba, bele luma edo onddo lehorra, pentsarazteko gauza, aizu!, ulertzezu, ezta?, txanponak trastetan xahutzen zituzten, iltzetan, erropetan, hala esan baliteke, ze bere ditxosozko txaleko gorri hura gabe ez bainuen inoiz ikusi, mukizua berriz alpargata eta alkandora hutsean, sinesten ez baduzu ere, niri entzunda zahar xuhur baten tankera hartzen badiozu, oker zaude, berak gauzei ez zien balorerik ematen, bere pentsamenduak ziren haren ondare guztia, zoragarria benetan!, zaude, zaude, ez zaitez jaiki, ez duzu ba pentsatuko, 35 urte hauek honetan eman eta gero, hitz egin bitartean bizarra mozten ikasi ez dudarik?, eser zaitez, emaidazu unetxo bat zapi hauek berotan jartzeko, eta tarahumara horren gorabeherak kontatuko dizkizut, etzenuen horrelakorik espero, ezta?, indiar tarahumara bat, alajaina, zergatik diodan hori?, ez dakit ba, seguru asko mazatekoren bat, edo yakia, edo zapatekoa, indio apal eta moldatuagoak diren horietakoren bat izango zelakoan egongo zinela uste nuen, ikustezu, Nogales, Cananea eta Hemosillo artean dauden tarak ez tira dozenatik gora izango, herrietan esanahi dizut, ea gero ondo kontatzen asmatzen duzun zera horretan... America Today esan didazu, ezta?, ez dakit asmatuko duzun deskribatzen dizudan gorputz horren arima bere indar eta argitasun guztiarekin azaltzen, irakurle amerikarra gauza izango ote den, zure luma dela medio, borroka kontuak baino harantzago joan eta berriketen gaintetik sakoneko mamia ulertzeko, orain patilletan ukitutxo bat eta ezkontza baterako moduan utziko zaitut, nahi baduzu garagardo batzuk eskatuko ditugu arrangurei bustialdi bat emateko, ze kontatuko dizudanak holako zerbait behar baitu; aizu, zertan da Tucsón?, hainbeste denbora da, izan ere, mugaz bestalde joan ez naizela, lehen, duela 40 urtetik gora, ia astero joan ohi nintzen Tuc aldera, txerriak saltzera, bakizu, amen batean zeharkatzen genuen basamortu marrukaria eta delako 57. highway horretatik bertatik sartzen ginen hiriaren erdi-erdiraino, ez zenuke ezagutu ere egingo, pentsa, jaiotzeko zeunden artean, oraindik ere han ibiltzen ziren tranbiak eta zubia egin gabe zegoen, 300, 400 edo 1000 txerri eraman ohi genuen hiltegi nagusira, Higgings kalekora, gaur egun drogen shop bat dela uste dut, Drug-Store bat, eta kobratu ondoren ez gintuzten handik ikusi ere egin nahi izaten, nesken ezpain gorri haiek, maitasunaren ohantze gozoa... eta orain, ikustezu, hanka flebitisak guztiz janda eta aldaka hezurra, berriz, pipiak jota, denborak, adiskidea, ez du geldiunerik egiten, abiada zoroan doa noraezean eta denok garamatza bere bagoietan, batzuk luxuzkoetan eta besteak txerri-orgetan, baina denok amiltzen gaitu ezerezean, bakizu, bere ateak zabalduz doa, bazterrera botatzen dituen gorpuekin jorratuz ezerezerako bidea, denok dugu bihurgune bat geuretzako gordea eta alperrik ariko zara gidariari erreguka, etzaizu geratuko, halaxe esaten zidan berak, ezer esan gabe, baina, tira, utz ditzadan nire miseriak, benetan eztezula garagardorik nahi?, ai, Tucsón, horixe ederra ederrik bada, ea, jar zaitez ondo, eta bizarra mozten dizudan bitartean, duela aste pare bat gertatua ekarriko dut gogora, nahi baduzu piztu ezazu grabatzeko tresna hori, ze oraingoan bai, oraingoan ez dut oroitzapenen haria eten eta nire kontu zaharrak nahasteko asmorik, azalduko dizut nola batzuen doilorkeria eta grina gaiztoak bere gainera erori ziren, hura zapaldu, txikitu eta lurperatuz, hala uste

dute beraiek, nahi baduzu bigotetxo bat utziko dizut, horrek beti ere kazetari itxura pixka bat ematen du, zaude, zaude, airegailu arraio horrek beste abiadurarik duen begiratuko dut, ea aire sapa astun hau nolabait astintzen dugun, zeuk esango didazu, niregatik, berriro diotsut, ez ahaztu bigotearena, orain..., nahiago baduzu, aitaren batean kenduko dizut irribarrea bera eta guzti eta kito, zeuk esan, hemen, bakizu..., "gizon bigote gabea, mukizua ala mirabea", ulertzezu, ezta?, grabatu, grabatu, piztu al duzu? Azken aspaldi honetan hainbat iskanbila izan zituzten bai, esanahi dut, berak eta belar txarreakin dabilzan horiek, bakizu zertaz ari naizen, ezta?, behin honezkero badakizu hemen, Nogalesen, intxaurrekin baino errazago bestelako belar batzuk hazten direla, eta muga hortxe bertan dagoenez, eguna joan eguna etorri zeharkatze lanari lotzen zaio jendea, nahiz Concepción ibaitik nahiz menditik bertatik, marra zaintzen duen ranger tropelari ziria sartzea da erronka eta harakoan zamaxoren bat eramatea, horrela gabilza beti bala-hots eta atxiloketa artean, eta makina bat muturreko ere nahi baino gehiagotan, ahaztu nahian eta txantxetarako ez zeuden horietako batean, eraso zioten kanposantuan otoitzean ari zela, labankada eta ostikoka garbi utzi zioten ez zutela kaiola haiekin berriz ikusi nahi, eta hantxe utzi zuten zerri bat bezalaxe irekita, hilobi baten marmolaren gainean botata, eskerrak mutikoa ateraino etorri eta batzuen artean "doc"arengana eramateko modua egin genuen, bendatu, igeltsatu eta sendatu zuen honek, han ibili zen gero 6 edo 7 astean igeltsua arrastaka zuela, baina hala ere ez zion uzten kaiolekin batetik bestera ibiltzeari, eta bere orga zaharra enparantzako pexou-ra bideratzen zuen, nik marmarka sumatzen nituen arkupetan, espaloietan, eta esana nion ba nik garbi asko, horiekin ez dagoela jolasik, iguanen kontuarekin jarraitzen baldin bazuen ez zebilela ondo, iguanak baitziren, bakizu, musker handi moduko horiek, beren arantza zorrotz eta guzti, berak eta mutikoak delako Cerro de la Encantada horretan harrapatzen zituzten, han urrutian, Cananea aldera jota, horiek harrapa zitezkeen leku bakarra, eta ez pentsa, ez, inolako modu arrarotan aritzen zirenik, kobazuloaren aurrean pipa erretzen jartzen zen eta ez dakit haren keagatik edo haren kantu marmarraren astunak eraginda, baina kontua da pizti horiek beren kabizulo sakonetatik atera eta otzan-otzan bere oinetara heldu eta belaunetan kiribiltzen zirela, honek, orduan, bere urezko esku haiekin hartu eta kaioletan jartzen zituen poliki-poliki; ariko zera pentsatzen ze nolako sorginkeriak xurgatzen zituen lur heze barru haietatik, ze lilurak egiten zien tira... nik neuk ere ez tet horretarako erantzunik eta, nik uste, behin honezkero bizi naizen arte guztian ez dudala izango, zenbat aldiz ez ote nion esan iguanen kontu horrekin segitzeakaz zeoze etorriko zitzaiola gainera, mutikoak ematen baitzidan beste ezerk baino beldur gehiago, eta uzteko dena denboraldi batez, ahuntzei ateratakoarekin boladan batean bizi ezinik ez zuela izango-eta, neure onetik ateratzen ninduen ezereen kezkarik ez izate horrek eta begien zirkinik ere ez egiteak, bakizu, ezta keinu txikienik ere, nahiz eta itzal ilunenak inguruan ibili, adaxkez eginiko kaiolatik kanpo buztana astintzen zuten pizti berde haiek baino geldiago beti, muskerren bihotza baino hotzago... eta senak esaten zidana halaxe bete zen, ze 3 aste igaro ordurako eta rangerrak belar txarrezko adreiluen 50 kilo aurkitu zituztenarekin batera, gainera etorri zitzaizkion ekaitz beltzak harrapatutakoan bezalaxe, txabola erre eta mutikoa eramane zioten, miseri gorrian geratu zen eta aldi baterako Cerro de la Encantada horretan ezkutatu zen, hantxe aurkitu nuen, harria bezain gogor eta hotz, iguanak bezain berde eta geldi, bertan arrazoi bidetik sarrarazi nuen, etenaldi bat eginez denbora batez itxoingo zuela agintarazi nion, biloba

agertu artean behintzat, eta gero ere gorrotoaren erauntsia baretzen zen bitartean, horrela ba, barberiraino ekarri nuen eta iguanena utziko zuela segurtatu zidan, burua makurtuz; ez dizut esan zertarako erabiltzen zituzten eta zer dela-eta hainbesteko iskanbila, ez dakit jakinaren gainean zauden txakurren aldean usaimen handia dutela animalia hauek, eta horregatik bidaltzen direla hemendik, Nogalesetik, Mugetako Polizien ehunka Kontrolgunetara, eta horietan marihuana usaindu eta atzemateko erabiltzen dituztela txakurren era berean, muga zeharkatzen duten milaka lagun artean, hemen, Ciudad Juárez, Piedras Negras, Nuevo Laredo, Reynosa edo Matamorosen, hainbatek berekin eraman nahi izaten duten marihuana hori atzemateko, hain zuzen ere, horregatik zin eginarazi nion ez zuela besterik inoiz gehiago salduko eta badirudi ondo jabetu zela eta, esateizut, hementxe egon zen bizitzen, oilo batzuk haziz, atzeko aldeko estalpe koxkor batean, beno, bera eta bere biloba, askatu egin baitzuten nik segurtatu nienean, garbi ikusi zutenean beste iguanarik ez zutela harrapatuko, hortxe eduki nituen beren latazko tipi antzeko hori Navojoa ondoan berregin zuten artean, aurrekoa baino zertxobait urrun eta ezkutuagoan, dena den, egia esateko, mozerro hori nahikoa alferrik izango zuten baldin eta iguanak bidaltzen jarraitu izan balute, luzeak dira gero belargile horien atzamarrak, agudo azalduko zitzaizkien, bai, Navajoako lautadetan eta lata zaharrak baino areago bestelako zerbait erreko zuten bertan, baina halaxe iritzi zion berak eta goiz batean agur esan zidan, lehen aipatu dizudan isiltasun zaratatsu horrekin, bere zorro eta zakuto sortarekin, oiloen kukurruku artean eta mutikoak makila batez geratzen zitzaizkien sei ahuntzak zuzentzen zituela urrundu zen, komeniko litzaizuke mugalerrora ikustaldi bat egitera joatea, iguanen lana ezagutzeko besterik ezpada ere, eguzki itsuak ñabartzen duen haien lepo berde-urdinsketako uhal eta korapiloak ikus ditzazun eta zamak nola usaintzen dituzten, eta belargile guzti horien etsipen zitara ikus dezazun andre edo mutikoren batek bere zorrotzua galtzen duenean eta haien eskupekoa galdu eta berriro ere alde honetara itzularazten dietenean, zeruari zin egiten diote larrutik ordainduko dietela musker madarikatu horiek, komeniko litzaizuke, bai, ze orduan ulertuko zenuke hainbat katramilaren zergatia...eman, eman, emaiozu buelta zintari, oraindik zer kontatu handia daukat-eta, oraindik gauza batzuk jakin beharrean zaude, nik argituko dizut emandako hitza zenbateraino bete zuen, nor izan zen ala emandako hitza jan egin zuen, nik jakinaraziko baitzizkizut zure erreportaje hori borobilduko dizuten xehetasun guzti horiek, aizu, kontuak kontu, ze nolako izena jarri behar diozu, ez didazu esango alu horien gustuko ergelkeriaren bat jarri behar duzunik, ezta?, ez ote duzu behintzat gringokeria txatxuren batekin izendatuko, pentsa ezazula ondo eta zeoze erabakitzen duzunean jakinarazidazu, eta nik aldatuko dizut, seguru dakit zerbait egin beharko dudala, bakizu, begi luzea dugu hemen, eltzekorik ezean ere, Nogaleskook, mingainari eragiteko kontuetan, esateizut pentsa ezazula eta ikusiko duzu ze nolako izenburu polita emango dizudan, zuk itzultzea besterik ez daukazu, bete itzazu egunkariko orriak "HILKETA ERRITUALA" bezalako hitzekin eta ahalegindu zaitez egia behar den bezala kontaktzen, beren doluminetan ezkutaturik bizi diren herri horiei darien egia, haize zerzeroak daraman eta taberna atarietan uzten duen egia hori, umeez ezagutzen dutena eta beren jolasetan abesten dutena, suzko arratsetan malenkoniak jotakoek kontaktzen dutena; argazkiak?, ez, ezingo duzu batere atera, bakizu, indiarren lege zaharra, marrazkiren bat akaso, epaitegietako erreportaje horien antzera, plumillan egindako marrazkiz hornituta ateratzen diren horiek, jabetu zaitez, ba al da ba epai azkarragorik

Jaungoikoak arimari egiten diona baino, HARENGANA egin baitu hegaz hiltzuan, ez, esateizut, argazkirik ezingo duzu egin, nik bere kanposanturaino lagunduko dizut, lur sakratua da, hemendik pare bat orduko bidean, hiltzen diren indiarren gorpuak utzi ohi ditugun lekua, beren arimak animalien batengan sar daitezten, iguana baten gorputzean edo txakal batenean edo, agian, putre baten lumajeon, hor zehar ibiliko da berea ere gauari aiurika, auskalo, nork daki, arraioa, oraintxe geratu behar al zuen bentiladore horrek ere, garagardo batzuk ekar ditzaten bidaliko dut norbait, ikusiko duzu nola on egingo dizun; kontuak kontu, esaten nizunari jarraituz, aldi luze batez ez genituen hemen ingurutik igarotzen ikusi, bazirudien belargileen haserreak beste norabaitera aldentzen zirela, pexoukoarekin zebiltzala setaturik, muskerrak erosten zizkionarekin, alegia, Catedraleko kale bazterrean aurkitu baikenuen labankadaz josirik, kasik eskuarteon geratu zitzaigun, odola ahotik zeriola eta, noski, kaiola guztiak kendu zizkieten, baina muskerrenak bakarrik, ze gainerako animalienak, txakur, guakamaio, hamster eta abarrenak hantxe baitzeuden, hori bai, zartako ederra emana zioten aquariumeko kristalari txiki-txiki egin utziz, eta sartu ginenean, edo polizia sartu zenean, arrain eta muelote eta langosta saldo galanta zebilen lurrean isatsa herio batean astinduz, penagarri geratu zen, denda diot, eta bera, ba, gure indiarren antzera, negozioa puska baterako utzi beharrean, puska baterako esan dut eta ez dut ondo esan, ze duela aste gutxi batzuk dena saldu eta ospa egin zuen Hermosillo aldera hankak arin; haren hutsunea nabarmen sumatzen nuen arratsetan, aspaldian kulunkatzen ez zen haren mezedorari begiratzen nion eta, ez dakit, iguana baten antzera kiribiltzen zitzaidan halako samin mingots bat hemen ezta... baina seinale ona zen: bere orga zaharrean handik igarotzen ikusten ez genituen bitartean, bake itxura hartzen genion, sinistu nahi genuen ez zela, nonbait, berriro ehizean hasi eta belargileak lasai utziko zutela, nik ahuntz taldea zaintzen jotzen nuen, egunsentiarekin batera oiloek jarritako arrautzak biltzen eta paraje lehor hartako haize eta euriek latetan egindako harrotuak konpontzen, edo bere bilobari irakurtzen eta kontakizunak moldatzen erakusten, ez bainuen eskolarako bidean ikusten, eta baliteke guzti hori egitea, baina ezkutuko lanean ere jarraitzen zuen, nonbait: berak azaldu zidan, bere isiltasun harekin, duela gutxi, bi kantara esne eta arrautza dozena batzuekin salmentarako asmoan etorri zen batean, dagoneko igeltsurik gabe eta guztiz osaturiko itxurarekin, iguanak ez omen zituela saltzeko soilik harrapatzen, ez, bere arbasoen arimak haien jaioterrietan askatzeko baizik, hau da, Arizonan, Sonora-ko alderdi amerikarrean, duela 200 urte bota baitzituzten bertatik, eta muga-lerroa, poliziak eta txartel batzuk zirela medio zeharo urrun geratzen zen; poliziei saltzen zizkien eta hauek hilabete batzuen buruan galdu egiten zituzten, ilargi handiko gauetan arrastaka isilean haurtzaroko muinoetan barrena desagertuz, baina kaka zahar bat balio ez zutenez, berriak ekartzen zituzten eta ohitu egin ziren desagertze hartara, oraindik gerlari ugari omen zegoen bestaldera pasatzeko, eta orduantxe jabetu nintzen: alu arraioa zuzenean konpontzen zen Poliziarekin eta usain txarra hartu nion, belargileek alkahuetetzat joko zuten eta horrek galbidea ekarriko zion, hortaz jabetu zedin ahalegindu nintzen aipatu dizudan goiz horretan, kantara eta arrautzekin etorri zenean, jakinarazi nahi nion aurreko egunean belargile haiek bati moztu niola bizarra eta haren begiradak mendekua erakusten zuela: ez zidaten ezer galdetu baina jakin bagenekien haiek barberian ikusteak zorigaitza zekarrela, norbaiten heriotza, alegia, eta horrelaxe azaldu nion, baina berak, besterik gabe, zeru urdin mingarriari begiratu zion, eta kalean behera joan zen traste

guzti haiekin, esnetegian eta fruta eta arrautzen dendan geratu arte; bihotza bere lekutik atera beharrean jarri zitzaidan haietako bi ikusi nituenean tabernatik atera eta arkupe guztia zeharkatzen, Polizia?, gizona, ahaztu egin al zaizu Sonoran zaudela?, txakurrei deitu izan banie, seguru asko hark bezalaxe amaituko nuen nik ere, erreka lehorturen batean botako zuten nire gorpua eta piñole adar batzuekin estaliko zuten, eta gero denak txintik atera gabe han geratuko ziren beren balkoietatik keari behaka, eta horren ondoren haragi errearen usain nabarra besterik ez zen nagusituko Nogaleseko kale bazter eta enparantzetan zehar, azkenik haizeak urrun eramango zuen eta harekin batera nire oroitzapena ere, ez, mutu eta geldik geratu nintzen, marmitak elkarren kontra jotzen entzunez eta hura ikusiko nuen azken aldia izango zela pentsatuz, hortxe eseri nintzen, bera erretzen eta marmarrean egon ohi zela esan dizudan lekuan, eta oroitzapenen kulunkan ibili nintzen, Tucón eta gatzeko basamortu beldurgarria etorri zitzaidan gogora, ahoan sumatzen nuen, mingaina ahosabaian eransten zitzaidan, inguru hari zerion sugarrak oroimena bera ere kiskalita uzten zuen, zeru urdin mingarriari begira jarri nintzen besterik gabe, bihotzak kanta zaharren baten hitzak abestu zitzala, eta itxaron egin nuen, itxaron, bi morroi zeken haiek bueltan zetozela eta arkupea inolako zaratarik gabe zeharkatu zutela ikusi arte, eta orduan are indar handiagoz kulunkatu nintzen abesten jarraituz, nekien guztia kantatu eta itxaron egin nuen: indar bitxi batek altxarazi eta kale bazter hartara bultzatu ninduen, eta han aurkitu nuen lurrean botata, hilik, alu malapartatu pare hura ondo saiatu zen, bai, bultzaden bultzadez iguana haietako bat eztarri zuloan sartu zioten; neuk ikusi nituen pizti zahar haren hanka gihartsuak, atzamarrak, aurpegia zulatzen, buruko arantzak ahoaren barren barrenean iltzatu zitzaizkion eta arnasarik gabe itota hil zen, baina ez ordea animalia, oraindik bazuen bizi apur bat eta, buztanetik tiraka aritu banintzaion ere, ez nuen ateratzerik izan, alukume haiek ondo bultzatu zuten horregatik, halako moduan, ze ez genuen animalia erdibitzea beste aukerarik eduki, baina burua eztarri zuloan kateatuta geratu zitzaion eta horrelaxe eraman behar izan genuen ohandze moduko batean kanposantura, lehen nahi bazenuen eramango zintudala esan dizudan leku horretara, eta hantxe jaso genuen bere ohandze moduko hartan, makila tente batzuen gainean utziz, bere Jaungoikoarengandik hurbil, bere gorputza putreek irentsi dezaten eta bere arima txakal, suge edo tekolote baten gorputzera igaro dadin, edota albotik joaten ez zaizkion iguana horietako batengana, gau batean beste aldera lerratzen den garaian haren arimak behar duen atsedena izan dezan.

Biloba?, enkarguak egin eta oilartokia zaintzen dit, hortxe atzeko aldean.

Horixe da legea, ene gringo txikia, eta hobe egingo dizu gehiagorik ez galdetzea eta are gutxiago auzo inguru honetan.

Ah! eta etzazula gero deskuiduz ere izenik aipa, ez pertsonarik, ez tabernarik, ez dendarik, nahiz eta, gura bazenu, ez daukazun barberia honetako zerbitzu eta eskaintza berezien azalpen dotorekote bat zertan ez emanik zure irakurleei.

Eta horixe da guztia, morroi, hemen gauzak maitasun izorratuak bezalaxe ahazten dira, besterik gabe.

Baina zatoz, zatoz, oraintxe bertan ixten dut barberia eta esango dizut non dagoen lo, mesié.

Gero, arratsean, hemeretzigarren highway hartu nuenean Tucsónera heltzeko prest, saguaroz jositako paisaia martiar hartan, so egiten nion deskuiduz, beldurrez, nire eskuineko jartokiaren gainean zegoen plumillaz egindako marrazki sakratu harri, ez nekien non zetzan hark sortzen zitzaidan urduritasuna, akaso saguaroen beso arantzadun erraldoi haiek, akaso bizargin berritsu hark kontatutako istorioak, agian berak aipaturiko basamortuaren isiltasun zaratatsu hura, zopiloteak ikusten nituen autoaren arrastoak jarraitzen, barnekoa hondakin hutsa izango balitz bezala, azeleragailua sakatzen nuen barruraino, nire oroitzapenak ere barruraino zurrupatzen nituen aire beroan, Tucsóñ begi-bistan eduki nuenerako, banekien istorio haren izenburua.